

Altza

Larraitz Garmendia (fnoa.: 943-391267)


donostiako auzo batzuetan ez bezala, Altza erabat itxuraldatzen da udan: kaleak hutsik, dendak itxita eta denbora pasatzeko aitzakia urriak. Udak bizimodu aldazten die bertan geratzen diren altzatar gutxiei. Erosketak ezin dira ohiko tokietan egin, eta topaguneak ere aldatu egiten dira.

Altzan geratzen diren zenbait gaztek lagun koadrila berriak osatu behar dituzte abuztuan, bakarrik ibili nahi ez badute behintzat. Halaxe adierazi digu Txomin Torrado 23 urteko auzotarrak: «egia

Abuztuan Altzan bizirauteko abentura

Uda Altzan berezia da, batez ere abuztuan. Izan ere, bertan bizi diren askok jaioterrira alde egiten baitute, Altzatic edo Euskal Herritik kanpora. Kaleak hustu egiten dira, eta hainbat dendek ateak itxi behar izaten dituzte. Abentura dirudi uda osoa Altzan pasatzeak.

esan, kosta egiten zaigu erritmo honi egokitzea. Abuzturako lagun talde berria bildu eta hilabetea ahal den moduan pasatzen dugu». Izan ere, adinduek edo helduek ezezik, gazteek ere Altzatic alde egiten dute abuztuan. «Gazteak txikitatik joan dira gurasoen herri- eta lagunak egin dituzte han. Badakite herriko lagunak ikusteko aukera bakarra abuztuan dutela eta gehienak gurasoekin joaten dira hara», dio Txominek.



Udan altzatar gutxi geratzen da auzoan. Ia dendari gutziek oporrak hartzen dituzte.

Gazte askok koadrila berria egin behar dute abuztuan

Kultur ekintza gutxi

Altzako gazte askok hondartzara jotzen dute udan, edo gaez, inguruetako herrietako

festeetara. Hala ere, bertan geratzen direnek zer egiten dute? «Frontoira edota kiroldegira joaten gara, edo bestela, etxeetako balkoien itzalpean solasean aritu», diosku Txominek.

Kultur arloan ere nabaria da beherakada. Ekitaldi gutxi egiten dira udan. «Kultur etxean ez da ekintzarik programatzen abuztuan, eta langileok bertan gauden arren, jendeak itxita ditu ateak», adierazi digu Casares kultur etxeko langile batek.

Denda askok ere ez dute zerbitzurik ematen abuztuan. Bezero batzuek geldialdi hau gaizki ikusten duten arren, dendariei ondo datorkie oporrak hartzeko aukera hau. «Egoera honetaz

baliaturik, oporrak hartzen ditugu», dio Altzako merkataritari batek.

Egia da udan aldaketa handia dagoela Altzan, baina urtez urte gero eta altzatar gehiagok erabakitzen dute uda gure artean igarotzea. Antza denez, duela urte batzuk ez zen inor geratzen Altzan. Dena dela, abuztu honetan ere huts samar nabarituriko dugu auzoa

UIS IRIZAR
sukaldaritza eskola

1999KO UDAKO IKASTAROAK

- **Uztailaren lehen hamabostaldia (1-16):**
«Euskal Herriko betiko sukaldaritza»
- **Uztailaren 2. hamabostaldia (19-30):**
«Entsaladen mundua, sarrerako plater hotzak eta oinarritzko arrozak»
- **Abuztuaren lehen hamabostaldia (2-13):**
«Gaurko postreen aukera»

GOIZEZ: 10.00etatik 14.00etara

Mari kalea 5, behea (Kaiaren gainean) • Tfnoa.: (943) 431540

HERMES Berritu berria!

ARROPA ETA OSAGARRIAK
2 ESKURAK ARROPA
KOMIKIAK, DISKOAK ETA ABAR

Fermin Calbeton 33 • PARTE ZAHARRA
Tfnoa.: 943-420659